



ORDENANTZAK

ANDRE MARIA ZURIA GURE AMAREN KOFRADIA

Gasteiz, 2007



ORDENANTZA BERRIAK

1. TITULUA. ANDRE MARIA ZURIAREN KOFRADIA, JATORRIA, IZAERA ETA HELBURUAK

II. TITULUA. KOFRADIAKO KIDEAK; ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

III. TITULUA. KOFRADIAREN ERAKUNDEA ETA GOBERNUA.

I. kapitulua.- Gobernu organoak

Lehen atala: Xedapen orokorrak

Bigarre atala: Batzorde orokorrak

Hirugarren atala: Gobernu Batzordea

Laugarren atala: Batzorde Iraunkorra

II. kapitulua.- Kofradiako karguak.

Lehen atala: Abadea

Bigarren atala: Zuzendari izpirituala

Hirugarren atala: Etxezainak

Laugarren atala: Idazkaria, diruzaina, giltzaria eta bestelako karguak

Bostgarren atala: Bete gabeko karguak

IV. TITULUA. PRESIDENTZIA KONTSEILUA.

V. TITULUA. EKITALDIETAN EGIN BEHARREKO OSPAKIZUNA

VI. TITULUA. ANDRE MARIA ZURIAREN OMENEZKO GURTZAK

VII. TITULUA. ONDAREA

VIII. TITULUA. ORDENANTZAK ONARTZEA ETA ALDATZEA.



I. TITULUA. ANDRE MARIA ZURIAREN KOFRADIA: JATORRIA, IZAERA ETA HELBURUAK.

1. artikulua.- Andre Maria Zuriaren kofradia Gasteizen osatu zen kandelagileen gremioaren ekimenez. 1613ko ekainaren 17an sortu zen modu kanonikoan, San Migel Arkanjeluaren parrokiaren eta gaur egun ere hor du egoitza. Hain zuzen ere, eliza horretan daude Ama Birjinaren kapera eta horma hobia, eta hor egiten dira Andre Maria Zuriaren omenezko ospakizunak. Zapatari kalea, 35 helbidean dago egoitza.

2. artikulua.- Kofradiaren helburua Santa Maria Jainkoaren Ama gurtzea da, Andre Maria Zuriaren deiturapean, bai eta haren omenezko jaiera publiko nahiz pribatua sustatzea ere. Halaber, jaiera horri loturiko orotariko jarduerak (erlijiosoak, historikoak, artistikoak, folklorikoak, etnografikoak) gauzatzen dituzte.

3. artikulua.- Kofradia fededunen elkarte publikoa da, eta Zuzenbide Kanonikoaren arauak (298-320), pertsona juridikoen gaineko xedapen orokorrek (113-123), ordenantza hauek nahiz kofradiako organo eskudunek onartzen dituzten arauak zuzentzen dute.

4. artikulua.- Eliza zuzenbideko elkarte publikoa izaki, kofradiak izaera zehaztugabea du. Agortzen da soilik legez murrizten badu eskudun aginteak edota jarduera eteten badu ehun urtez (120).
Diozesiko apezpikuak desagerrarazi egin dezake arrazoi larria dela medio, aurretik abadeari eta gobernu batzordeari entzun eta gero (320)..

5. artikulua.- Helburuak bete daitezzen, kofradiak honako hauek sustatuko ditu:

- Jainkoaren amaren aldeko maitasuna eta kidetzea
- Andre Maria Zuriaren aldeko jaiera.
- Dohain kristauetan jardutea.
- Senidetasuna, bakea eta harmonia jende guztiaren artean, bereziki, kofradiako kideen eta Gasteizko herritarren artean.
- Kofradiako kide guztien batasun izpirituala eta, orokorrean, Gasteizko diozesiko guztien batasun izpirituala mantentzea, eta apezpikuarekiko bat etortzea.
- San Migel parrokiaren berezko jarduerak sustatzea, bultzatzea eta horietan parte hartzea.
- Gizarte talde guztiekiko elkartasuna, batez ere, baztertuenen kasuan.
- Biltzarrak, ekitaldiak, topaketak, eta abar antolatzea eta egitea antzeko helburuak dituzten beste elkarte eta taldeekin.
- Kofradiaren ondare erlijiosoa, artistikoa eta kulturala hobeto ezagutaraztea ahalbidetzen duten argitalpenak, erakusketak eta bestelako jarduerak sustatzea.
- Farolen Museoa mantentzea. Museo hori Andre Mariaren jaiaren eta Gasteizko nahiz Arabazo ondare historiko eta artistikoaren adierazgarri berezia da.



- Gure herriko ondare kultural inmateriala sustatzea. Hor barne hartzen dira ahozko adierazpenak eta tradizioak, nahiz Andre Maria Zuriari loturiko gizarte ohiturak, erritoak eta jaiak.

6. artikulua.- Helburuak lortzeko, Kofradiak honako baliabide hauek izango ditu:

a).- Andre Maria Zuriaren aurrean komunitate deialdiak egitea (gurtza ekitaldiak, prozesioak, taldeen bisitak, eta abar). Kofradiako kideen presentzia eta jaiera aktiboa bultzatzea (kapera bisitatzea, horma hobiaren aurrean eskaintzak egitea, eta abar), eta esker emateko ospakizunak programatzea, data garrantzitsuak gogoratze aldera.

b).- Behar diren jarduera guztiak gauzatzea Farolen Museoa osatzen duten pieza artistiko guztiak gordetze aldera; museoaren edukia ezagutarazteko kanpainak gauzatzea (bisitaldi gidatuak, teknologia berrien bitartez ezagutaraztea, eta abar), eta kofradiak XVII. mendean geroztik izandako jardueraren ondorioz sortutako ondare dokumentala eta bibliografikoa gordetzea, antolatzea eta ezagutaraztea.

c).- Gizarte komunikazioko nahiz kofradiaren barne baliabide guztiak erabiltzea kofradiako kideek eta fededunen ezagutarazte eta prestakuntza lanetarako, bai eta beste erlijio, gizarte, kultura erakundeekiko eta abarrekiko harremanetan lankidetzan aritzeko ere.

II. TITULUA. - - KOFRADIAKO KIDEAK: ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

7. artikulua.- Kofradiako kideetat onartu ahal izango dira hala eskatzen duten eta kofradiaren helburuekin bat datozen eliza katolikoko fededun guztiak. Adin txikikoen kasuan, haien guraso edo tutoreek haien izena eman dezakete. Hala ere, hemezortzi urte betetakoan, kofradian sartu nahi duten berretsi beharko dute libreki.

8. artikulua.- Kofradiako kideek honako eskubide hauek izango dituzte:

- Kofradian egoteagatik ezarritako induljentzietan eta grazietan parte hartzea eta, hiltzen direnean, haien omenez hiru meza egitea.
- Farolen Arrosarioaren Prozesioan parte hartzea.
- Partaidetza aktiboa izatea batzar orokor ohiko eta ezohikoetan. Dena den, eskubide hori ez da izaten kofradian onartu eta urtebetera arte.
- Kofradiaren egoera ekonomiko eta administratiboa ezagutzea, bai eta egindako obrak eta aztertzen ari diren proiektuak ere.
- Gobernu organoetako kideak aukeratzea eta kide izateko aukera ditzaten.
- Iradokizunak edo proposamenak aurkeztea gobernu organoetan, azter ditzaten, eta, hala badagokio, erabakitzea.

9. artikulua.- - Kofradiako kideek honako betebeharrak hauek dituzte:

- Kofradiako kideen batasun izpiritualaren eta Gasteizko fededunen alde lan egitea, ordenantza hauetan jasotako helburu eta baliabideekin bat.
- Kofradiak antolatzen edo sustatzen dituen ekitaldi publiko eta pribatu guztietara joatea, bereziki, Andre Maria Zuriaren jai ospatzeari dagozkionetara.
- Andre Maria Zuriaren jarraitzaileen kopuru albait handienak izen eman dezan sustatzea.



10. artikulua.- Ezin izango dira kofradiako kide izan, edota kofradiako kideen izaera galduko dute, fede katoliko publikoki arbuiatzen dutenak, elizarekiko komunioa alde batera uzten dutenak edota anatema inposatu edo deklaratu zaienak (316)..

Kofradiako kideak ezin izango dira kanporatu arrazoi bidezkorik eta behar bezala egiaztaturik gabe, eta aurretik Gobernu Batzordeak entzun gabe.

III TITULUA. KOFRADIAREN ANTOLAMENDUA ETA GOBERNUA.

I. KAPITULUA: Kofradiako organoak

Lehen atala.- Xedapen orokorrak

11. artikulua.- Honako hauek dira kofradiaren gobernu organoak: Batzar Orokorra, Gobernu Kontseilua eta Batzorde Iraunkorra.

Gobernu Organoak abadeak zuzentzen ditu, Idazkariak eta kapilauak lagunduta, nahiz bi etxezainek lagunduta, eta Lehendakaritza Kontseiluaren aholkuarekin.

12. artikulua.- Kofradiako kide guztiak izenda daitezke abade izateko, bai eta gobernu batzordeko nahiz horrek sortutako batzordeetako kide izateko.

Izendatutakoek, beren jarduera kofradiaren ordenantzetara doituko dute beren jarduera eta dagozkien esparruen batzar orokorrak, gobernu batzordeek eta batzorde iraunkorrak hartutako erabakiak beteko dituzte. Joko da ez da dutela esleitutako konfiantza beteko, baldin eta ez badituzte justifikatzen bileretara ez joatea, onartutako ardurak ez betetzea edota esleitzen zaien erabakitzeko gaitasuna gainditzea.

Batzorde Iraunkorrak jokabide hori nabarmendu egingo du, eta arretarik ez egitekotan, uzte espedientea izapidetuko da izendapena onartu zuen gobernu organoaren aurrean.

13. artikulua.- Gobernu organoetan, gaiak bozkatu egingo dira eta diren botoen gehiengoz onartu. Ez dira zenbatuko abstentzioak eta boto nuluak. Kideek boto bakoitza eman dezakete eta boto guztiek balio bera dute.

Botoak modu publikoan emango dira, pertsonak aukeratzeari dagokionean salbu edota bertaratutakoen bosten batek hala eskatzen duenean.

Bi zenbaketa egin eta gero botoetan berdintasuna egotekotan, abadeak aukeratuko du kalitate botoz.

Hauteskundeak direnean, bi hautagairen edo gehiagoren artean berdintasuna badago bi bozketa jarraitutan, adin handikoena izendatuko da.

Bigarren atala.- Batzorde orokorra

14. artikulua.- Batzorde Orokorra erabakitzeko eta gobernuko organo gorena kofradian, eta honako eskumen hauek ditu:

- Ordenantzak et ahorren aldaketak onartzea.
- Abadea eta etxezainak izendatzea.
- Idazkariaren, diruzainaren, giltzariaren eta gobernu batzordeko beste kideen izendapenak jakinaraztea.
- Kofradiako kide emerituak presidentzia kontseiluan sustatzea.
- Aurrekontuak, kontuak eta urteko txostena onartzea.



- Gobernu Batzordeari proposamenak eta iradokizunak eskuratzea kofradiaren jarduerari eragiten dieten gaitan.

15. artikulua.- Batzar Orokorrak ohiko bilkura egingo du urtean behin, gutxienez, lehentasunez azken hiruhilekoan, aurretik abadeak deituta, Gobernu Batzordearekin bat.

Bilkuran, hala badagokio, ordenantzak eta horien litezkeen aldaketak tratatuko dira, bai eta izendapenak, aurrekontuak eta kofradiaren kontuak nahiz Batzar Orokorraren eskumeneko gainerako gaiak ere.

Batzar Orokorrean, idazkariak memoria aurkeztuko du. Horretan, kofradiako kideen altak eta bajak, egindako jarduerak eta aztertzen ari diren proiektuak barne hartuko dira. Halaber, diruzainak kontuen egoera azalduko du, gastuen eta diru sarreraren emaitzak azalduz, bai eta onartutako aurrekontuekin bat datozen ere.

16. artikulua.- Ezohiko bilkura egin ahal izango da baldin eta abadeak, Gobernu Batzordeak edo Batzorde Iraunkorrak onartutako akordioarekin bat, deitzen badu, onartu behar diren gaien izaera edo premiazkotasunak hala eskatzen duenean. Nolanahi ere, idatziz eskatu behar die kofradiako kideen hogeiren bati, gutxienez.

Ezohiko saioetan, ezohiko saioa deitzeko arrazoia izan diren gaiak bakarrik trata daitezke.

17. artikulua.- Bilkura Orokorrak deitzen direnean, direla ohikoak edo direla ezohikoak, jakinarazteko ohiko bideetan iragarriko dira eta San Migel Arkanjelaren parrokiako iragarki oholean, gutxienez bilkuraren data baino hamar egun lehenago, eta tratatuko diren gaiak berariaz adierazi behar dira.

Gai zerrendan ordenantzak aldatzeko proposamenak badaude, alda daitezten proposatzen diren testuak kofradiako kideen eskura jarriko dira hogeita hamar egun lehenago kofradiaren egoitzan.

Batzar Orokorrez gain, abadeak informazioa emateko batzarrak ere deitu ahal ditu, aurretik Batzorde Orokorrarekin adostuta, betiere.

18. artikulua.- Abadeari edo haren ordezkari dagokio batzar orokorretako presidente izatea, saioak irekitzea eta altxatzea, deliberamenduak zuzentzea eta bideratzea, hitza ematea eskatutako ordenan eta kofradiaren ordenantzak zehazki bete daitezzen zaintzea.

Hirugarren atala.- Gobernu Batzordea

19. artikulua.- - Gobernu Batzordea abadeak, kapilauak, etxezainek eta Batzorde Iraunkorreko gainerako kideek zein Presidentzia Kontseiluko kideek osatzen dute.

20. artikulua.- Gobernu Batzordearen eskumenekoa izango da:

- Kofradiak behar bezala funtziona dezan beharrezkoak diren akordio eta erabakiak hartzea eta batzar orokorrak onartutakoak gauzatzea.
- Aurrekontuen proiektuak, kontuak eta urteko memoria onartzea.
- Kofradiaren ordenantzetan beharrezkotzat jotzen diren aldaketak proposatzea.
- Batzar Orokorrean sartzea, presidentzia kontseiluak aurretik hala iragarrita, abadearen eta etxezainen karguak beteko dituztenak.



- Abadeak eta etxezainek hala proposatuta, eta presidentzia kontseiluak hala entzunda, Batzordeko eta Batzorde Iraunkorreko zati izango diren idazkaria, diruzaina, giltzaria, giltzari orde, dokumentalista, hedabideen arduraduna eta bi batzordekideak izendatzea, bai eta batzordeetako arduradunak ere+.
- Batzorde iraunkorraren ekintza exekutibo kontrolatzea.

21. artikulua.- Gobernu Batzordea ohiko bilkuran bilduko da gutxienez hiru hilean behin, abadeak lehenago eskatuta, besteak beste, bere eskumenekoak diren gaiak tratatzeko.

Batzorde Iraunkorrak eta Presidentzia Kontseiluak abadeari eskatu ahal diote ezohiko bilkura dei dezan, tratatu beharreko gaia premiazkoa den kasuetan edota gairen bat onartu behar denean.

22. artikulua.- Gaiak aztertzeko edo prestatzeko, Gobernu Batzordeak hainbat batzorde izenda ditzake. Horiek ezartzen den Batzorde Iraunkorreko kideak deituko eta zuzenduko ditu.

Laugarren atala.- Batzorde Iraunkorra.

23. artikulua.- - Gobernu Kontseiluaren Batzorde Iraunkorra Batzorde Orokorren eta Gobernuaren akordioak exekutatzeko organoa da. Abadeak, kapilauak, etxezainek, idazkariak, diruzainak, giltzariak, giltzari ordeak, dokumentalistak, erakundeekiko eta hedabideekiko harremanen arduradunak eta bi batzordekideak osatzen dute. Azken horiei egotz dakieke idazkari orde edo diruzain orde funtzioak bete ditzaten.

Batzorde Iraunkorreko kideak berritzeko, erdika eta zati berdinetan egin behar da.

24. artikulua.- Batzorde Iraunkorraren deialdia abadeak egingo du, eta bilkurarako gai zerrenda adierazi egin behar du. Gutxienez, bi hilean behin bilduko da eta abadeak beharrezkotzat jotzen duen guztietan.

II. KAPITULUA.- KOFRADIAKO KARGUAK.

Lehen atala.- Abadea.

25. artikulua.- Abadeari dagokio kofradia eta horretako gobernu organoak zuzentzea, bai eta kofradiaren ordezkari izatea edozein aginte, erakunde eta pertsonaren aurrean ere. Bere izaera dela medio, besteak beste, honako funtzio hauek egotzen zaizkio:

- Batzar Orokorren, gobernu batzordeen, batzorde iraunkorraren eta presidentzia kontseiluaren bilkurak zuzentzea. Onartutako akordioak bete daitezen zaindu behar du, bai eta, komenigarritzat jotzen duen guztietan, batzordeen bilkuretara jo ere.
- Kofradiak emandako agiriak baimendu egin behar ditu bere sinaduraren bitartez.
- Funtzio erlijiosoetan eta prozesioetan bere kardua eta duintasuna egiaztatzen dituen makila eramatea.

26. artikulua.- Honako hauetan bere presentzia aukerakoa izango da:

- Auroraren Arrosarioa eta Meza eta Meza Pontifikala, abuztuaren 5ean.
- Bezpera Handiak eta Farolen Arrosarioa, abuztuaren 4an.



- Andre Maria Zuriaren bederatziurrena ospatzeko otoitz bilkurak (uztailaren 27tik abuztuaren 4ra).
- «Blusen eguneko», “Zeledoi txikiaren eguneko” eta “Blusa beteranoaren eguneko” meza, Andre Maria Zuriaren kaperan.
- Hileko hirugarren larunbateko arrosarioa eta meza, hirian aurreko hilabetean hildako pertsonen omenez.
- Esker emateko meza, Andre Maria Zuriaren koroatzearen urteurrenean, arriaren 17an.
- Urtean hildako kofradiako kideen omenezko meza, azaroaren 2an.
- Batzar Orokorrak, informatiboak, gobernu batzordearen, batzorde iraunkorraren eta presidentzia kontseiluaren bilkurak.

27. artikulua.- Abadea izendatzea batzar orokorrari dagokio, gobernu batzordeak hala proposatuta eta presidentzia kontseiluak hala baimenduta. Aukeratu eta gero, diozesiko apezpikuari aurkeztuko zaio, berrets dezan. Proposamenerako, lehentasunez, ethezain kargua bete duten pertsonak hartuko dira kontuan.

28. artikulua.- Karguak hiru urteko iraupena izango du, eta berriro hautatu ahal izango dira. Nolanahi ere, berriro hautatzekotan, ezin izango da berriro ere izendatu kargu horretarako ondorengo agintaldian. Kargua uztean, Presidentzia Kontseiluko kide izatera pasako da, eta gonbidatzen duten batzordeetan parte hartu ahal izango du.

Bigarren atala.- Kapilaua.

29. artikulua.- Kapilaua izendatzea, kofradiaren gobernu batzordeak hala entzunda, diozesiko apezpikuari dagokio soilik. Bere oinarrizko eginkizuna da kofradiaren orientazioa eta aholkularitza izpirituala. Bere funtzio espezifikoak, ordenantza hauetako lehen eranskinean zehazten dira.

Hirugarren atala.- Etxezainak

30. artikulua.- Lehen eta bigarren ethezainak abadeari lagunduko diote kofradiaren gobernu organo guztietan eta hori ordezkatzeko dute, hala agindutakoan, kargu hutsa, ausentzia edo aldi baterako ezintasuna egotekotan.

31. artikulua.- Etxezainak izendatzea batzorde orokorrari dagokio, gobernu batzordeak hala proposatuta eta presidentzia kontseiluak baimenduta, abadearen karguarekin gertatzen den moduan. Berriro aukeratu ahal izateko, abadearen kasuko 28. artikuluan jasota dagoenaren arabera jardungo da.

Laugarren atala.- Idazkaria eta gainerako karguak

32. artikulua.- Idazkariaren funtzio orokorrak dira gobernu organoaren saioetako aktak altxatzea, saioetara joatea, akordioen fede ematea, kofradiaren dokumentuak izapidetzea eta, zehazki, II. eranskinean ezarritako betebeharrak guztiez arduratzea.

33. artikulua.- Diruzainari dagokio Kofradiaren ondare ekonomikoa osatzen duten funts eta ondasunak administratzea, nahiz kofradiaren baliabideak kudeatzea, zehazki, III. Eranskinean xedatzen diren jarduerak gauzatu.



34. artikulua.- Giltzariari dagokio kofradiaren ondareak zaintzea, gordetzea, zaharberritzea eta sustatzea. Hain zuzen, bere funtzio zehatzak IV. eranskinean zehazten dira.

Aurrekoari laguntzeko bere eginkizunak betetzen, giltzari ordea izendatuko da.

35. artikulua.- Dokumentalitari dagokio kofradiaren artxibo historikoa eta administratiboa antolatzea, dokumentu funtsak leheneratzea, dokumentu guztiak egoki gorde daitezen beharrezko baliabideak proposatzea eta V. eranskinean adierazten diren gainerako funtzioak betetzea.

36. artikulua.- Erakundeekiko eta gizarte hedabideekiko harremanen arduraduna arduratuko da hedabideekiko harreman sistemak ezartzeaz, sortzen den informazioa berreskuratzeaz, Kofradiaren ekitaldietako komunikazio moduak proposatzeaz eta VI. eranskinean xedatutako betekizunak garatzeaz.

37. artikulua.- Atal honetan azaltzen diren karguak nahiz Batzorde Iraunkorra osatuko duten bi batzordekideak izendatzea Gobernu Kontseiluari dagokio, abadeak eta etxezainek hala eskatuta, eta Presidentzia Kontseilua jakinaren gainean egonda.

Aurreko paragrafoan azaldu diren pertsona guztien agintaldiaren iraupena hiru urtekoa izango da, eta luzatu egin ahal izango da.

38. artikulua.- Idazkaritzari, diruzaintzari eta giltzariari loturiko gaiak aztertzeko eta prestatzeko batzordeak eratzen badira, dagozkien karguak deituko eta zuzenduko dituzte, eta helburu horretarako izendatzen den kideak jardungo du idazkaritzat.

Bosgarren atala.- Bete gabeko karguak

39. artikulua.- Heriotza, dimisioa edo kargua betetzea galarazten duen gaixotasuna gertatzekotan, abadearen funtzioak lehen etxezainak beteko ditu, ezohiko batzar orokorra egin arte. Hain zuzen, al bait bizkorren deituko da batzar orokorra, izendapena egite aldera.

40. artikulua.- Etxezainen kasuan, Gobernu Batzordeak izendatuko du ohiko Batzar Orokorrean.

Batzorde Iraunkorreko gainerako kideen kasuan, Gobernu Batzordeak izendatuko ditu.

IV. TITULUA.- PRESIDENTZIA KONTSEILUA

42. artikulua.- Presidentzia Kontseiluko kide izango dira kofradian abade kargua bete duten kide guztiak eta kofradiako kide emerituak, eta karguak bizi arteko izaera du.

Kofradiako kide emerituak izendatzea Gobernu Batzordeari dagokio, abadeak hala eskatuta, eta izendapen hori Batzar Orokorrean berretsi behar da. Kofradiaren alde luzaroan lan egiteagatik bereizten diren kofradiako kideak dira izendatu beharrekoak.

43. artikulua.- Honako hauek dira Presidentzia Kontseiluaren betekizunak:



- Abadearen eta etxezainen izendapen proposamenarekin ados dagoela adieraztea, batzar orokorrean berretsi aurretik, eta aurretik idazkariaren eta Batzorde Iraunkorreko gainerako kideen izendapenen jakinaren gainean egotea.
- Gobernu Batzordearen ohiko bilkuren bitartez, programazioetan eta aurrekontuetan parte hartzea, aztertzeari eta, hala badagokio, onartzeari dagokionez.
- Modu korporatiboan joatea Abadea egon dadin derrigorrezkoa den kultu ekitaldietara.
- Kideen artean edo Batzorde Iraunkorrean banderaduna aukeratzea kofradiaren zutoihala eraman dezan ospakizunen zerrendan adierazitako ekitaldietan, bai eta horren ordezeko banderadun ordea ere, lehena joan ezin daitekeenetan ordezkari dezan.

44. artikulua.- Presidentzia Kontseiluak abadearen deialdiarekin bat egingo du, eta kideetako idazkari gazteen gisa jardungo. Akordioak onartzeko, bertaratutakoen botoen gehiengoak egon behar du, eta berdintasunik gertatzekotan, abadeak erabakiko du, kalitatezko botoari esker.

V. TITULUA.- EKITALDIETAN EGON BEHARREKO OSPAKIZUNAK

45. artikulua.- Kofradiako kideen harrera Andre Maria Zuriaren kaperan egingo da ekainaren 17an, Kofradia eraiki zen urteurrenean, alegia, edota egokitzen jotzen den beste edozein datatan. Kapilauak bedeinkatu egingo du kofradiako kide berriari abadeak jarritako bereizgarria.

45. artikulua.- Abadeak eta etxezainak Andre Maria Zuriaren kaperan hartuko dute kargua izendatzen dituzten Batzar Orokorrean adierazten den datan. Idazkariak Batzar Orokorraren erabakia irakurritakoan, hautatutakoek onarpen formula esango dute eta hitz emango dute beren karguari loturiko betekizunak beteko dituztela. Kapilauak bereizgarri pertsonalak bedeinkatuko ditu eta izendatutakoei ezarriko dizkie. Irteten den abadeak makila bere ordezkari emango die eta etxezainek, berriz, argizarizko aizkora emango diete beren ordezkoei.

46. artikulua.- Kofradiako gobernu organoetako gainerako kideek aurreko artikuluko bigarren paragrafoan adierazi bezala hartuko dute kargua. Kapilauak Abadeari bereizgarria emango dio.

47. artikulua.- Honako hauek izando dira kofradiako organoetako kideen bereizgarriak:

- Soka urdindun domina, Batzorde Iraunkorreko kideek.
 - Soka txuridun domina, Presidentzia Kontseiluko kideek.
- Bereizgarri horiek Gobernu Batzordeko kideek eramango dituzte soilik Kofradia joaten den ekitaldietan.

48. artikulua.- - Elizaren barruko funtzio erlijiosoetan, prozesioa banderak irekiko du. Atzetik, Presidentzia Kontseiluko kideak eta Gobernu Batzordeko gainerako kideak joango dira, eta Abadeak itxiko du prozesioa, bi Etxezainen artean.



Udal Korporazio osoa joaten baldin bada, Alkateak, Udaleko ordezkari gisa, eta kofradiako ohorezko abadeak presidentzia banatu egingo dute abadearekin. Abadeak bere karguaren bereizgarri den makila emango dio agintari horri elizara sartzean eta irteeran hartuko dio berriz, eta hor agurtuko da Udal Korporazioa.

Jarraigoetan, prozesioetan, eta abarrean, lehendabizi bertaratutako kofradiako kideek desfilatuko dute, bandera atzetik dutela. Bandera Presidentzia Kontseiluko bi kideen artean joango da. Horien atzetik, Gobernu Batzordeko gainerako kideak joango dira, eta martxa abadeak itxiko du bi ethezainen artean. Jarraigoa Andre Maria Zuriaren irudiaren aurretik egongo da hari eskainitako prozesioetan.

49. artikulua.- Bandera kofradiaren sinbolo gisa joango da Batzar Orokorretara, kofradiako kideen harrera ekitaldietara, ofizialki programatutako kultu ekitaldietara eta Gobernu Batzordeko hileta ospakizunetara.

VI. TITULUA- ANDRE MARIA ZURIAREN OMENEZKO GURTZAK

50. artikulua.- Andre Maria Zuria Gure Amaren ohorez bestelako ekitaldiak gauza daitezkeen arren, nolana ere, honako hauek ospatu egingo dira:

• **Bederatziurrena** .- Uztailaren 27a eta abuztuaren 4a bitartean bederatziurrena egiten da Andre Mariaren jaiaren aurretik:

- Goizean, eukaristia eta sermoi bereziarekin.

- Arratsaldean, arrosarioa errezatzen da, eukaristia, sermoi berezia eta kaperara arteko prozesioa egiten dira. Kaperan, eskaintza aurkezten da eta salbea abesten.

Bederatziurrenaren azken egunean bezpera nagusi abestuak egingo dira.

• **Farolen Prozesioa**.- Abuztuaren 4ko gauean, XIX. mendez geroztik Farolen Arrosarioaren prozesioa egiten da. 270 elementu ditu, hots, karrozak eta farolak, eta horien atzetik Santo Domingo Guzmangoaren eta Andre Maria Zuriaren irudiak egoten dira.

Ibilbide tradizionalak XIX. mendeko bigarren erdiko zabalduko kaleak barne hartzen ditu. Bukatzeko, salbea egiten da Andre Maria Zuriaren plazan, prozesioaren irudiaren aurrean.

• **Auroraren Arrosarioaren Prozesioa**. - Abuztuaren 5ean hiriko Erdi Aroko kaleak zeharkatzen ditu, Santo Domingo Guzmangoaren eta Andre Maria Zuriaren irudiek lagunduta. Horiek blusek eramaten dituzte bizkar gainean. Ibilbidea Andre Maria Zuriaren Plazan bukatzen da, eta hor Meza Santua egiten da, Kofradiako kapilauaren eskutik.

• **Meza pontifikala**.- Abuztuaren 5ean, San Migel Arkanjeluko parrokian meza pontifikala egiten da, Diozesiko Apezpikuak zuzenduta.

• **Koroatzea gogoratzeko meza**.- Urriaren 17an, 1954az geroztik eta Andre Maria Zuriaren koroatze kanonikoaren ondoren, jazoera hori gogoratzeko meza nagusia egiten da esker emateko, sermoi eta guzti.

• **Hilen meza**.- Azaroaren 2an hileta meza egiten da hildako kofradiako kide guztien omenez.

• **Hileko hirugarren larunbata**.- Larunbat horietan guztietan, 1961az geroztik, meza santua ospatzen da arrosarioaren ondoren, Gasteizen aurreko hilean hil diren pertsona guztiak omentzeko.



VII. TITULUA.- KOFRADIAREN ONDAREA

51. artikulua.- Kofradiak gaitasun juridikoa du ondasunak erosteko, atxikitzeko, administratzeko edo besterentzeko, zuzenbidearen arabera (kan. 1.255)..

Ondasunen jabetza Kofradiari dagokio.

52. artikulua.- Kofradiak ondasunak administratuko ditu kofradiaren izaeraren eta helburuen arabera, zuzenbide zibilarekin eta ordenantza hauekin bat, elizako agintari gorenen zuzendaritzapean, eta, hain zuzen ere, horiei kontuak jakinarazi behar zaizkie urtero (kan. 319)..

53. artikulua.- Hortaz, kofradiak honako hauek egin ditzake:

a).- Orotariko ondasunak eta eskubideak erosi eta besterendu zuzenbide zibilean ageri diren modalitate guztien bidez.

b).- Herentziak, legatuak eta dohaintzak onartu.

c).- Fededunen artean dirua biltzea kofradiaren beraren gastuak ordaintzeko edota eliza katolikoak zuzendutako laguntza edo ongintza lanak garatzen laguntzeko.

54. artikulua.- Kofradiaren ondasunak diruzainak administratuko ditu, eta albait hobekien kudeatzen saiatuko da.

Diruzainak, Gobernu Batzordearen edo Batzar Orokorraren baimena behar izan gabe, administrazioko ohiko ekintza guztiak egin ditzake, kasuaren arabera, betiere. Ezohiko jardueretarako adierazitako bi organoetako baten baimena beharko du.

Batzar Orokorrak baimena eman beharko du baldin eta besterendu nahi diren ondasunen balioak gairitu egiten badu abian den urterako onartutako aurrekontuen hogeirenari dagokion zenbatekoa. Gainerako eragiketarako, aski izango da Gobernu Batzordearen baimena.

55. artikulua.- Kofradia desagertzen bada, kofradiaren ondasunak Gasteizko San Migel Arkanjeluaen parrokiari emango zaizkio.

VIII. TITULUA.- ESTATUTUEN ONARPENA, INDARRALDIA ETA ALDAKETA

56. artikulua.- Ordenantza hauek indarrean sartuko dira Batzar Orokorrak onartzen dituenean eta Diozesiko Apezpikuak berresten dituenean, eta indarraldiak iraun egingo du indargabetzen edo aldatzen ez diren bitartean.

57. artikulua.- Gobernu Batzordeak, bere ekimenez edota kofradiako kideen bosten batek hala eskatuta, Batzorde Orokorrari egokitzat jotzen dituen zuzenketak proposatu ahal izango dizkio Batzorde Orokorrari, zerbait gehituz, kenduz edo aldatuz.

58. artikulua.- Ordenantzetan ez dagoen arau bat gehitzeko, aldeko botoen gehiengo osoak egon behar du batzar orokorrean diren kofradiako kideen aldetik. Indarrean den testuko arau bat kentzeko edo aldatzeko batzar orokorrean diren kideen bi herenen aldeko botoa beharko da.



ERANSKINAK

I. ERANSKINA.- ABADEAREN FUNTZIOAK (29. artikulua)

- Ordenantzetako artikuluetan xedatzen dira, zehazki, 25.ean eta 26.ean.

2. ERANSKINA.- ETXEZAINEN FUNTZIOAK (30. artikulua)

- Ordenantzetako artikuluetan xedatzen dira, zehazki, 30.ean.

III. ERANSKINA.- KAPILAUAREN FUNTZIOAK (29. artikulua)

Kofradiaren orientazio izpirituala:

- Zehazki programatutako kultuak zuzentzea.
- Arau edo praktika erlijiosoak aldatzeko proposamenak.
- Gobernu Batzordeetako bilkuretara jotzea.

Parrokiarekiko harremana:

- Parrokiaren gainerako jardueretik koordinazioa.
- Kofradiak lagun dezakeen ekimenak proposatzea.

Proiektzio pastoralara:

- Helburuak zehaztea.
- Metodoak ezartzea.
- Antzeko ekimenetik lankidetzak.

Mariari buruzko pastoralara:

- parrokiako, hiriko eta diozesiko ekimenak bultzatzea.
- Mariari buruzko bestelako jaiarak sustatzea (santutegiak, ermitak, eta abar).
- Maiatzean ikastetxeen bisitaldiak programatzen eta gonbidapenak egiten laguntzea.
- Bisitariei harrera egitea eta arreta eskaintzea.

IV. ERANSKINA.- IDAZKARIAREN FUNTZIOAK (32. artikulua)

Kudeaketa administratiboa:

- Ordenantzak bete daitezen zaintzea.
- Bilkurak deitzea.
- Aktak idaztea.
- Erabakiak jakinaraztea.
- Urteko txostena idaztea.
- Gutunak irekitzea eta bidaltzea.
- Kreditzialak igortzea.

Dokumentazioa eta aholkularitza.

- Administrazio dokumentuen artxiboa.
- Kofradiako kideen fitxategia gordetzea.
- Ordenantzak alda daitezen proposamenak.

Erakundeekiko harremanak.

- Elizako hierarkia eta komunitateak.
- Agintari eta erakunde nahiz instituzio zibilak.

Informazioa.

- Kofradiako kideei, pertsonei eta erakundeei jakinaraztea.
- Buletinak eta oharak idaztea.
- Kanpainak programatzea.

V. ERANSKINAK.- DIRUZAINAREN FUNTZIOAK (33. artikulua)

Funtsak administratzea:

- Diru sarreren kontrola (dohaintzak, diru bilketak, eta abar)



- Fakturak ordaintzea.
- Diru sarreraren eta gastuen kontabilitatea.
- Segurtasun kutxa kontrolatzea (giltzariarekin batera).

Esku hartzea:

- Balantzeak eta aurrekontuen aurreproiektuak idaztea.
- Aurrekontu partiden egikaritzaren jarraipena.
- Aseguruak aztertzea eta kudeatzea.

Ondarea administratzea:

- Ondasunen inbentarioa taxutzea eta eguneratzea.
- Elementuak erostea eta saltzea.
- Inbentario eguneratua eta ondasunen balioztapena

Baliabideak kudeatzea

- Kofradiako kideen kuotak kobratzea.
- Finantzazio proposamenak.
- Funtsak aplikatzea.

VI. ERANSKINA- GILTZARIAREN FUNTZIOAK (34. artikulua)

Andre Maria Zuriaren kapera.

- Zaharberritze obrak proposatzea eta jarraipena egitea.
- Gurtza elementuen inbentario eguneratua.
- Mantentzea, garbitzea eta apaintzea.
- Limosnetan emandako funtsak kudeatzea.

Horma hobia – XIX. mendeko irudia

- Uneko arreta.
- Mantentzeko eta zaharberritzeko proposamenak.

Irudiak

- Kulturako edo gordailuan diren elementuen inbentarioa.
- Konpontzeko edo zaharberritzeko eta jarraipena egiteko proposamenak.
- Leku aldatzeak.

Farolen etxe-museoa:

- Obren proposamenak.
- Alarma eta segurtasun sistemen kudeaketa (su itzalgailuak, sartzeko ateak, eta abar).

Karrozak eta farolak:

- Elementuak mantentzea, ematea eta biltzea.
- Konpontzeko, arreta eskaintzeko eta jarraipena egiteko formulak proposatzea.

Prozesioak:

- Programazio orokorra eta ibilbideen programazioa.
- Irteerako, ibilbideko eta iristeko muntaia.

Segurtasun kutxa:

- Koroak eta zetroa: Irudia lekuz aldatzea eta jartzea.
- Emandako edo gordailuan, inbentarioak edo deskribapenetan dauden bitxiak.

VII. ERANSKINA.- DOKUMENTALISTAREN FUNTZIOAK (35. artikulua)

- Kofradiari eta Andre Maria Zuriaren jaietarako loturiko funts dokumentalak (testualak, grafikoak eta telematikoak) berreskuratzea.
- Kofradiaren artxibo historikoa eta administratiboa antolatzea (ordenatzea, deskribatzea eta ezagutaraztea).
- Kofradiaren dokumentazio guztia egoki gordetzeko beharrezko baliabide materialak proposatzea.



- Kofradiaren historia eta Mariari buruzko jaiera ezagutarazten laguntzea, bai berezko ekimeneko proiektuetan eta bai beste erakundeekiko lankidetzan, honako hauek oinarri hartuta:

- argitalpenak
- erakusketak
- baliabide informatikoak (kofradiaren web gunea)
- proiektu zehatzak

- Kofradiako karguekin aholkularitzan eta lankidetzan aritzea dokumentazioari loturiko alderdietan, alegia, berezkoak diren funtzioak betetzean sortzen diren dokumentuei dagokienez; eta dokumentuak tratatzeko, artxibatze eta antolatze sistemak proposatzea.

VIII. ERANSKINA.- ERAKUNDEEKIKO ETA GIZARTE HEDABIDEEKIKO HARREMANEN ARDURADUNAREN FUNTZIOAK (36. artikulua)

- Hedabideekiko harreman sisteman ezartzea eta hedabide horien (prentsa, irratia eta telebista) harremanetarako datuak (helbidea, helbide elektronikoa, web guneak, eta abar) eguneratuta izatea.

- Hedabideei kofradiaren berezko ekitaldietarako komunikazio moduak proposatzea:

- prentsa dosierrak
- ekitaldietarako komunikazio eredua

- Hedabideetan kofradiaren berezko edo Andre Maria Zuriaren jaiaren ekitaldi edo ospakizunen ondorioz sortutako informazio grafikoa, testuak eta irudiak berreskuratzea, dokumentalistari artxibo sistemetan laguntze aldera.

- Protokolo araudia proposatzea kofradiaren ekitaldi korporatiboetarako, gainerako karguekiko lankidetzan, eta bete daitezzen zaintzea.

- Farolen museoa ezagutarazteko programei aholku ematea eta proposatzea (bisitaldi gidatu orokorrak, erakundeen edo pertsona garrantzitsuen bisitaldiak, eta abar).